

Hamar urte betetzen direnean Jon Arretxek «7 kolore» liburua argitatu zuenetik –«batzuek esaten didate nire bidaia libururik onena de-

la»–, idazle polifazetiko honek aspaldiko ametsa gauzatu du: irudiak eta musika batzen dituen proiektua, disko-liburu eder bat alegia.

«7 kolore»: zazpi sentimendu eta amets bakarria disko-liburu batean

Amalía EREÑAGA | DONOSTIA

Formatu erakargarria oso, portadatik hasita –tapa gogorre itsatsita «banda sonoratzat» jo daitekeen CDa–; eta, orrialdeak pasa ahala, irakurleak Kristina Fernandezek sinatutako ilustrazio sotilekin, Francisco Ibañezek konposatutako kantuen partiturrekin eta Jon Arretxeren testuekin egingo du topo. «7 kolore» (Erein) lanak Gabonetako opari aproposa ematen du, baina Jon Arretxe idazlearentzat, oparia baino «amets bat errealitatea bihurtzea» izan da.

Orain hamar urte argitaratu zuen liburua estimu handian zuela aitortu zuen atzo Basaurikoak, baina harrezkero zapore arraroa gelditu zitzaion «hirugarren zutabea» faltan botatzen zuelako: musika behar zuen. Literaturatik aparte –bidaia liburua eta, azken garaian, nobela beltza landu du–, Arretxerentzat musikak ere garrantzi handia du. Gizon polifazetiko honek piano ikasketak eginak ditu, baita kantua ere, Bilbo eta Gasteizko kontserbatorioetan.

Azken honetan gauzatu ahal izan dute proiektua: bertako irakasle batzuk «engainatu» omen zituen, Olatz Saitua soprano ezaguna –Arretxeren kantu irakaslea zen– edo Francisco Ibañez konpositorea kasu. Ibañez 1997-2006 tartean Jesus Guridi kontserbatorioko zuzendaria izan zen eta gaur egun bertako irakaslea da. Zinema, antzerkia

eta orkestrarako lan ugari eginak ditu, baita musika jaialdietan estreinatu ere, besteak beste, Donostiako Hamabostaldian.

Argitaletxea aurkitu ostean –«pausorik zailena», Arretxeren hitzetan–, proiektua gorpuztu zezaketen. Abiapuntua, «7 kolore» hura, baina orain Arretxek berriro idatzi. Gaztelaniazko bertsoaz, kanten letrak ere itzuli baitzituzten, Jose Luis Padron arduratu zen.

Kultura anitzetan zazpia zenbaki magikoa denez, zazpi koloretan banatu zuen Arretxek bere bidaietan bizitakoa: beltzetik zurira doan arko kromatikoa; hau da, Mendebaldean heriotza doluan bizitzen da, baina Ekialdean beste modu batera ikusten dute bertako kulturek. Idazleak berak, baxua baita, abesten ditu hasierako eta bukaerako kantok.

Francisco Ibañez Irribarriak adierazi zuenaren arabera, lied doinuak egin ditu; hau da, musika klasikoaz jantzi dituzte testuek. «Ez da ez pop-a, ezta kontsumorako musika», esan zuen, astia hartuta disfrutatu, behar dena baizik. Grabaketa zuzenean burutu zen, «tranparik gabe», idazlearen hitzetan. Eta nola moldatzen da kantatzen Jon Arretxe? «Ezuste atsegina izan da», konposatzailearen hitzetan.

Iñaki Belasko piano jotzailea, Olatz Saitua sopranoa eta Enrique Campos tenoreak osatzen dute musika taldea. Zuzeneko estreinaldia, Hondarribian izango da, abenduaren 18an.



Jon Arretxe idazlea, Cristina Fernandez ilustratzailea eta Francisco Ibañez konposatzailea. Andoni CANELLADA | ARGAZKI-PRESS

LITERATURA


Atxaga, Bilbo Zaharra Forumen azken ekitaldian

“Erle” irakurlearen saioa izeneko ekitaldiak itxiko du ostegunean Bilbo Zaharra Forumeak antolatzen dituen jardunaldiak. Hitzordua 19.00etan Plaza Barriako Euskaltzaindian izango da, eta besteak beste, Bernardo Atxagak hartuko du parte. Idazleak Euskaltzaindiaren babesarekin argitaratu zuen 2009an “Erle” literatura aldizkaria. Argitalpenaren inguruan idazle eta artista talde garrantzitsua biltzen da, eta dagoeneko hirugarren zenbakia kalean dago. Idazleak “Ogi hutsa”ren zati bat irakurtzeaz gain, iruzkinak eta hizketaldiak izango dira.

MUSIKA

Eguberrietan kontzertua emango du Oskorrik

Iazko arrakastaren ostean, Iruñeko Peñen Federazioak eta Oskorrik Eguberrietako II. Kontzertua eskainiko dute abenduaren 17an Anaitasuna pabiloian 20.00etan. Emanaldirako hamazazpi herri kantu prestatu dituzte, eta pantaila handi bat ere jarriko dute, ikus-entzuleek abestiak kantatu ahal izateko. Ateak 19.30ean zabalduko dira eta sarrera doakoa da, lekuak bete arte. Nobedade gisa, borondatezko diru ekarpenak jasoko dituzte, Paris 365 jantoki solidarioarentzat.



Keu Agirretxe, atzo Donostian. Gari GARAIALDE | ARGAZKI-PRESS

«Denbora vs kantuak» diskoa kaleratu du Keu Agirretxeak, akustikoan, etxean grabatutakoa

O. LARRETxea | DONOSTIA

Disko hau grabatzerako orduan denboraren neurriak «ezinbesteko garrantzia izan du», adierazi zuen atzo Ondarroako musikariak Donostian. Keu Agirretxeak ez zuen lana amaitzeko korrika eta presaka ibili nahi; hasieratik argi izan zuen patxada eskatzen zuen proiektua zela. Hamar hilabeteko grabaketa lan ostean kaleratu du akustikoan egindako «Denbora vs kantuak» (Gaztelupeko Hotsak) diskoa. «Urtarrilean hasi nintzen –azaldu zuen–, hilero-hilero abesti bat eginez, iragandako urrian amaitu nuen arte».

Grabaketa estudioetatik urruntzea hautatu zuen abeslariak eta lanaren zatirik handiena etxean egin du. «Oso erosoan izan da hala egitea, presioetatik urrun –zioen–. Emaitza oso naturala izan da, apaingarririk gabekoa, umila».

Prozesu horretan noiz edo noiz etxetik atera izan da, estudio txikietan kanturen bat grabatzeko. Lan honetako bost abestiren hitzak bereak dira, baina gainerakoak egiteko laguntza izan du. Zehazki Kirmen Uribe, Aiert Goenaga eta Mikel Etxabururenak. Musikari dagoen Agirretxeak berak konposatu ditu guztiak.

Akustikoan grabatutako abestiak «istorio txiki eta politex» hitz egiten dute, hala ere lana definitzerako orduan zailtasunak izan zituen, eta Agirretxe ez zen gai izan. Aurrekoarekin ezberdintasunik badu, ordea, besteak beste, oraino honetan ez dagoela gitarra elektrikorik eta beste musika batzuekiko erreferentziak topatzea zaila izango dela.

«Denbora vs kantuak» diskoarekin batera, Keu Agirretxek lehengo urtean Durangoko Plateruenan Mikel Arakistain baxu jotzailearekin batera eskainitako kontzertu akustikoa hiltzen duen DVD dator.